SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/07/03

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/07/03



# 2024KO EKAINAREN 27ko OHIKO OSOKO BILKURA

# *SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DE 27 DE JUNIO DE 2024*

Baztango Udaletxeko bilkura aretoan, 2024ko ekainaren 27an, 19:00etan, Baztango Udala Osoko Bilkuran bildu da, ohiko bileran, Fernando Anbustegi Goñi alkate-udalburu jauna buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mariano Iribarren Irigoyen, Jose Luis Retegi Iturbide, Alaitz Arretxea Etxeberria eta Gorka Urtasun Saldias EH-BILDU taldekoak; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche eta Joseba Moreno Videgain ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN taldekoak; Pello Sarratea Sanzberro BAZTANGO INDEPENDIENTEAK / INDEPENDIENTES DE BAZTAN taldekoa; Anastasio Nagore Garralda UPN taldekoa; GEROA BAI taldekoa.

Ez dira bertaratu: Lorea Lizarreta Insausti, Andoni Irigoyen Maritorena eta Lander Mattin Santamaria Alcocer.

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loyarte jauna aritu da.

Alkateak hasiera eman dio bilkurari.

*En la sala de sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 19:00 horas del día 27 de junio de 2024, se reúne, en sesión ordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde-presidente Fernando Anbustegi Goñi y con la asistencia de los siguientes concejales: Mariano Iribarren Irigoyen, José Luis Retegi Iturbide, Alaitz Arretxea Etxeberria y Gorka Urtasun Saldias por el grupo EH-BILDU; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche, Joseba Moreno Videgain por el grupo ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN; Pello Sarratea Sanzberro por el grupo BAZTANGO INDEPENDIENTEAK-INDEPENDIENTES DE BAZTAN; Anastasio Nagore Garralda por el grupo UPN; por el grupo GEROA BAI*

*No asisten: Lorea Lizarreta Insausti, Andoni Irigoyen Maritorena y Lander Mattin Santamaria Alcocer*

*Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loyarte.*

*El alcalde da comienzo a la sesión.*

**1.- 2024/05/23KO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.**
2024/05/23ko ohiko osoko bilkurako akta aho batez **berretsi dute** bertaratutakoek.

***1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ORDINARIA DE 23/05/2024.***
*El acta de la sesión ordinaria de 23/05/2024 es **ratificada** por unanimidad de los presentes.*

**2.- 2024KO UDAL-AURREKONTUAREN 21. ALDAKETA. KONTU-HARTZAILEAREN 2. TXOSTENA.**
Kontu-hartzaileak prestatu duen aurrekontu aldaketaren txostena azaldu da, saio honetako espedientean dagoena (2. zenbakiduna). Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman dute eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildu da.
Alkateak bozkatzera deitu du. Bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez 2024ko aurrekontuen aldaketari **hasierako onespena** eman zaio. **"Baztango hainbat obra asfaltatu, 291.701,84 €".**
Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 214.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, aurrekontua betearazteko oinarriek hala ezartzen dutenean, kreditu horiek emateko Osoko Bilkurak hartutako hasierako erabakia jendaurrean paratuko da Udalaren

***2.- MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA Nº 21 AL PRESUPUESTO 2024. INFORME DE INTERVENCIÓN Nº 2.***
*Explicado el informe elaborado por la interventora, adjunto al expediente de la presente sesión (nº 2), y una vez expuestos por los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.*
*El alcalde llama a votar. La modificación al presupuesto 2024 es **aprobada** por unanimidad de los presentes con carácter inicial. **"Obras asfaltados varios Baztan, 291.701,84 €".***
*De conformidad con lo dispuesto en el artículo 214.2 de la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, cuando las bases de ejecución del Presupuesto así lo establezcan, el acuerdo inicial adoptado por el Pleno para la concesión de los citados créditos será sometido a exposición pública en el tablón de anuncios de la*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/07/03
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/07/03

iragarki oholean, hamabortz egun naturaleko epean, herritarrek edo interesdunek egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak edo alegazioak aurkez ditzaten.
Epe hori iraganik, eta erreklamazio edo alegaziorik egin ez bada, hasierako onespen erabakia behin betikoa dela ulertuko da, eta jendaurrean egoteko epea iragan eta gero sartuko da indarrean.
Erreklamazioak edo alegazioak aurkezten badira, Osoko Bilkurak berariaz erabaki beharko du erreklamazio edo alegazioetan proposatutako aldaketak behin betiko onartzea edo ez. Erabaki hori indarrean sartuko da behin betiko testua toki entitatearen iragarki-oholean argitaratu ondotik.

**3.- BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUA ARIZKUNGO UE-5EAN, 56. POLIGONOKO 53 LURSAILEAN, PATXI MENTA NEMOURSEK SUSTATUA. HASIERAKO ONESPENA.**
Arizkungo 5. egikaritze-unitatearen borondatezko birpartzelazio-proiektua aurkeztu da, hasierako onespenerako. Birpartzelazioaren xedea da Arizkungo 56. poligonoko 53. partzelan mugatutako UE-5 eremuko finkak elkartzea.
Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua kontuan hartuta eta Hirigintzako udal aholkulariaren txostena (2406i016) ikusirik, Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez **erabaki du:**
1.- **Hasiera batean onestea** Arizkungo 5. egikaritze-unitatearen borondatezko birpartzelazioa. Hori guztia Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 152. artikuluetan xedatuarekin bat etorriz, eta hirigintzako udal aholkulariaren txostenaren arabera (2406i016).
2.- Espedientea jendaurrean jartzea, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 eguneko epean. Epe horretan, interesdunek eskuragarri izango dute espedientea udal-bulegoetan, egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 152.

*Corporación por un plazo de quince días naturales con el fin de que los vecinos o interesados puedan presentar las reclamaciones o alegaciones que estimen oportunas. Transcurrido dicho plazo, y si no se hubiesen formulado reclamaciones o alegaciones, el acuerdo de aprobación inicial se entenderá aprobado definitivamente, entrando en vigor una vez transcurrido el período de exposición pública.*
*Si se formularan reclamaciones o alegaciones, el Pleno deberá adoptar acuerdo expreso relativo a la resolución de aquellas y a la aprobación definitiva de la modificación propuesta, que entrará en vigor una vez publicado el texto definitivo en el tablón de anuncios de la entidad local.*

***3.- PROYECTO DE REPARCELACIÓN EN LA UE-5, PARCELA 53 DEL POLÍGONO 56 DE ARIZKUN, PROMOVIDO POR PATXI MENTA NEMOURS. APROBACIÓN INICIAL.***
*Se presenta para su aprobación inicial el proyecto de reparcelación voluntaria para la UE-5 de Arizkun. El objeto de la reparcelación es la agrupación de las fincas comprendidas en el ámbito de la UE-5, delimitada en la parcela nº53 del polígono 56 de Arizkun.*
*Teniendo en cuenta el Decreto Foral Legislativo 1/2017, de Ordenación del Territorio y Urbanismo y el informe del técnico municipal en urbanismo (ref. 2406i016), el Pleno, por unanimidad de los presentes, **acuerda**:*
*1.- **Aprobar inicialmente** la reparcelación voluntaria de la unidad de ejecución 5 de Arizkun. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 74 y 152 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, y con sujeción al informe emitido por el técnico municipal en urbanismo (ref. 2406i016), cuya copia se adjunta.*
*2.- Someter el expediente a información pública durante el plazo de 20 días a partir de la publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, durante el cual, dicho expediente se encontrará a disposición de los interesados en las oficinas municipales, a fin de que puedan formular las alegaciones que estimen oportunas, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 74 y 152 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/07/03

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/07/03

artikuluetan xedatutakoaren arabera.

3.- Akordio hau interesatuei helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

**4.- XEHETASUN-AZTERLANA ELIZONDOKO 16. POLIGONOKO 264 ETA 265 LURSAILETAN, BRAULIO IRIARTE 52KO JABEKIDEEK SUSTATUTA.**

2023/12/22an, hasiera batean, Elizondoko 16. poligonoko 265. partzelaren xehetasun-azterketa onartu zen, Braulio Iriarte 52ko jabekideek sustatua. Azterketa horretan, lerrokadurak aldatzea proposatzen da, eraikineko inguratzaile termikoa hobetzearekin batera oztopo arkitektonikoak eta irisgarritasuna kentzeko higiezinean egin nahi den jarduketa batean justifikatuta.

Jendaurrean egon den aldian, azterlan honetan 16. poligonoko 264. partzela sartu da, eta, 2023/12/22an egindako onarpenarekin alderatuta, funtsezko aldaketa dela iritzita, xehetasun-azterlana 20 egunez jendaurrean jartzeko beharra baloratu da.

Horiek horrela, eta hirigintzako udal aholkulariaren 2024/06/19ko txostena kontuan izanik (2406i024 erreferentzia), eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak ezarritakoa kontuan hartuz, Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez honako **erabaki du:**

1.- **Hasiera batean onestea** Elizondoko 16. poligonoko 264 eta 265 lurzatien xehetasun-azterlana, Braulio Iriarte 52ko jabekideek sustatua. Azterlan horretan proposatzen da lerrokadurak aldatzea, eta bi higiezinetan arkitektura- eta irisgarritasun-oztopoak kentzea, inguratzaile termikoa hobetzearekin batera, hirigintzako udal aholkulariaren 2024/06/19ko txostenaren (2406i024 erreferentzia) arabera.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 egun balioduneko epean. Epe horretan, interesdunek eskuragarri izango dute espedientea udal-bulegoetan, egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu

*aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

*3.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efectos.*

***4.- ESTUDIO DE DETALLE EN LAS PARCELAS 264 Y 265 DEL POLÍGONO 16 DE ELIZONDO, PROMOVIDO POR LOS COPROPIETARIOS DE BRAULIO IRIARTE 52.***

*Con fecha 22/12/2023 fue aprobado con carácter inicial el estudio de detalle de la parcela 265 del polígono 16 de Elizondo, promovido por los copropietarios de Braulio Iriarte 52, en el que se propone la modificación de alineaciones justificado en una actuación que se pretende acometer en el inmueble de eliminación de barreras arquitectónicas y accesibilidad, junto con mejoras en la envolvente térmica de la edificación.*

*Durante el periodo de exposición pública se ha incluido en el presente estudio la parcela 264 del polígono 16, y entendiendo que la misma es una modificación sustancial respecto a la aprobación realizada el 22/12/2023, se valora la necesidad de volver a poner en exposición pública por 20 días el estudio de detalle.*

*Atendiendo a lo expuesto y según el informe del técnico municipal en urbanismo de 19/06/2024, (ref. 2406i024), y a lo establecido en el Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el Pleno, por unanimidad de los presentes,* ***acuerda:***

*1.-* ***Aprobar inicialmente*** *el estudio de detalle de las parcelas 264 y 265 del polígono 16 de Elizondo, promovido por los copropietarios de Braulio Iriarte 52, en el que se propone la modificación de alineaciones, así como acometer en ambos inmuebles la eliminación de barreras arquitectónicas y de accesibilidad, junto con mejoras en la envolvente térmica, de acuerdo al informe del técnico municipal en urbanismo de 19/06/2024, (ref. 2406i024).*

*2.- Someter el expediente a información pública durante 20 días hábiles, a partir de la publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, durante el cual, dicho expediente se encontrará a disposición de los interesados en las oficinas municipales, a fin de que puedan formular las alegaciones que estimen oportunas,*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/07/03
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/07/03

bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 152. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

3- Nafarroan kaleratutako bi egunkaritan iragarkia argitaratzea.

4-. Akordio hau interesdunei igortzea, haren berri izan dezaten eta behar diren ondorioetarako, ohartaraziz tramitazio egintza izanik ez dagoela errekurtsoa aurkezterik**.**

*de conformidad con lo dispuesto en los artículos 74 y 152 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*
*3.- Publicar el anuncio en dos diarios editados en Navarra.*
*4.- Notificar el presente acuerdo a cuantos puedan resultar interesados, para su conocimiento y efectos oportunos, advirtiendo que se trata de un acto de trámite que no puede ser recurrido.*

**5.- HITZARMENA, BAZTANGO UDALARI ZUZENEKO DIRULAGUNTZA EMATEA ARAUTZEN DUENA, ORONOZKO KANKAN BIDEA ASFALTATZEKO.**
Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman ondoren, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua. Jakinda toki-entitateek akordioak, itunak, hitzarmenak eta kontratuak adosten ahal dituztela zuzenbide pribatu eta publikoko pertsonekin, beti ere ordenamendu juridikoaren kontra egiten ez badute, eta hitzarmen hau udal interesekoa dela ulertuta, Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez honako **erabaki du**:
1.- Oronozko Kankan bidea asfaltatzeko Baztango Udalari zuzeneko dirulaguntza ematea arautzen duen lankidetza-hitzarmena **onestea**. Hitzarmenaren testua bilkura honen espedienteari erantsi zaio.
2.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia izenpetzeko.
3.- Akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
4.- Erabaki hau interesdunei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

***5.- CONVENIO POR EL QUE SE REGULA LA CONCESIÓN DE UNA SUBVENCIÓN DIRECTA AL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN PARA EL ASFALTADO DEL CAMINO KANKAN DE ORONOZ.***
*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión. Considerando que las Entidades Locales pueden celebrar acuerdos, pactos, convenios o contratos con personas tanto de derecho público como privado, siempre que no sean contrarios al Ordenamiento Jurídico y considerándose de interés municipal la suscripción del presente convenio, el Pleno, por unanimidad de los presentes,* ***acuerda:***
*1.-* ***Aprobar*** *el convenio de colaboración que regula la concesión de una subvención directa al Ayuntamiento de Baztan para el asfaltado del camino Kankan de Oronoz. El texto del citado convenio se incorpora al expediente de la presente sesión.*
*2.- Facultar al alcalde para la firma de cuanta documentación fuera precisa suscribir en aplicación y desarrollo del presente acuerdo.*
*3.- Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.*
*4.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efecto.*

**6.- HITZARMENA, BAZTANGO UDALARI ZUZENEKO DIRULAGUNTZA EMATEA ARAUTZEN DUENA, LEKAROZKO BIDEA HOBETZEKO.**
Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman ondoren, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua. Jakinda toki-

***6.- CONVENIO POR EL QUE SE REGULA LA CONCESIÓN DE UNA SUBVENCIÓN DIRECTA AL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN PARA LA EJECUCIÓN DE LA OBRA MEJORA DE CAMINO DE LEKAROZ.***
*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/07/03
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/07/03

entitateek akordioak, itunak, hitzarmenak eta kontratuak adosten ahal dituztela zuzenbide pribatu eta publikoko pertsonekin, beti ere ordenamendu juridikoaren kontra egiten ez badute, eta hitzarmen hau udal interesekoa dela ulertuta, Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez honako **erabaki du**:

1.- Lekarozko bidea hobetzeko Baztango Udalari zuzeneko dirulaguntza ematea arautzen duen lankidetza-hitzarmena **onestea**. Hitzarmenaren testua bilkura honen espedienteari erantsi zaio.

2.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia izenpetzeko.

3.- Akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- Erabaki hau interesdunei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

*opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión. Considerando que las Entidades Locales pueden celebrar acuerdos, pactos, convenios o contratos con personas tanto de derecho público como privado, siempre que no sean contrarios al Ordenamiento Jurídico y considerándose de interés municipal la suscripción del presente convenio, el Pleno, por unanimidad de los presentes,* ***acuerda:***

*1.-* ***Aprobar*** *el convenio de colaboración por el que se regula la concesión de una subvención directa al Ayuntamiento de Baztan para la ejecución de la obra mejora de camino de Lekaroz. El texto del citado convenio se incorpora al expediente de la presente sesión.*

*2.- Facultar al alcalde para la firma de cuanta documentación fuera precisa suscribir en aplicación y desarrollo del presente acuerdo.*

*3.- Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.*

*4.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efecto.*

**7.- “ERRATZUKO HARRERA-EREMUA” JARDUKETA GAUZATZEKO PROIEKTUA ONARTZEA.**

Baztango Udalak sustatu eta Lino Plaza y Asociados SLPk idatzitako “Erratzuko harrera-eremua” izeneko balioetsitako memoria teknikoa ikusi eta baloraturik.

Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorrita eta gehiengo osoarekin, aho batez honako **erabaki du**:

1.- Baztango Udalak sustatu eta Lino Plaza y Asociados SLPk idatzitako “Erratzuko harrera-eremua” izeneko ekintza **onartzea**.

2.- “Erratzuko harrera-eremua” proiektua sartzeko eskatzea. Proiektu hori Baztan Bidasoa/ Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planean sartuta dato, eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatzen du, Next Generation EU funtsen kargura.

3.- Alkate jaunari, edo legezko ordezkariari, dagokion eskaera egiteko eta horretarako behar diren kudeaketak egiteko ahalmena ematea.

4.- Erabaki hau Cederna Garalur elkarteari jakinaraztea.

***7.- APROBACIÓN DEL PROYECTO PARA LA EJECUCIÓN DE LA ACTUACIÓN “ÁREA DE ACOGIDA EN ERRATZU”.***

*Vista la memoria técnica valorada denominada “área de acogida de Erratzu”, promovida por el Ayuntamiento de Baztan y redactada por Lino Plaza y Asociados SLP.*

*El Pleno, por unanimidad de los presentes, que lo constituye la mayoría absoluta de los miembros de la Corporación Municipal,* ***acuerda****:*

*1.-* ***Aprobar*** *la actuación denominada “área de acogida de Erratzu”, promovida por el Ayuntamiento de Baztan y redactada por Lino Plaza y Asociados SLP.*

*2.- Solicitar la inclusión del proyecto “área de acogida de Erratzu”, incluido en el Plan de Sostenibilidad Turística en Destino, Baztan Bidasoa/Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Plana, financiado por el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, con cargo a los fondos europeos Next Generation EU.*

*3.- Facultar al alcalde, o a quien legalmente le sustituya, para formular la correspondiente solicitud y realizar las gestiones necesarias a estos efectos.*

*4.- Trasladar el presente acuerdo a la Asociación Cederna Garalur.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/07/03

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/07/03

**8.- HITZARMEN-ARAUTZAILEA, BAZTANGO UDALAK "SL-NA 12 XORROXIN BIDEZIDORRA HOMOLOGATZEKO, EGOKITZEKO ETA SEINALEZTATZEKO LANAK" ETA "ERRATZUKO HARRERA-EREMUA" JARDUERAK GAUZATZEKO, CEDERNA-GARALUR ELKARTEARI "BAZTAN-BIDASOA" HELBURUKO JASANGARRITASUN TURISTIKOKO PLANA GAUZATZEKO NEXT GENERATION EU EUROPAR BATASUNEKO FUNTSEK EMANDAKO DIRULAGUNTZAREN BARRUAN.**

Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman ondoren, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua. Jakinda toki-entitateek akordioak, itunak, hitzarmenak eta kontratuak adosten ahal dituztela zuzenbide pribatu eta publikoko pertsonekin, beti ere ordenamendu juridikoaren kontra egiten ez badute, eta hitzarmen hau udal interesekoa dela ulertuta, Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez honako **erabaki du**:

1.- Lankidetza-hitzarmena **onartzea,** Baztango Udalak "SL-NA 12 Xorroxin bidezidorra homologatzeko, egokitzeko eta seinaleztatzeko lanak" eta "Erratzuko harrera-eremua" egitea arautzen duena. Lan horiek Cederna-Garalur elkarteari "Baztan-Bidasoa" helburuko jasangarritasun turistikoko plana gauzatzeko emandako dirulaguntzaren barruan daude, eta Europar Batasuneko Next Generation EU funtsek finantzatzen dute. Hitzarmenaren testua bilkura honen espedienteari erantsi zaio.

2.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia izenpetzeko.

3.- Akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- Erabaki hau interesdunei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

***8.- CONVENIO REGULADOR PARA LA EJECUCIÓN POR EL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN DE LAS ACTUACIONES DE "TRABAJOS DE HOMOLOGACIÓN, ADECUACIÓN Y SEÑALIZACIÓN DEL SENDERO SL-NA 12 XORROXIN" Y "ÁREA DE ACOGIDA DE ERRATZU" ENMARCADAS EN LA SUBVENCIÓN CONCEDIDA A LA ASOCIACIÓN CEDERNA GARALUR PARA LA EJECUCIÓN DEL PLAN DE SOSTENIBILIDAD TURÍSTICA EN DESTINO "BAZTAN BIDASOA", FINANCIADO POR FONDOS DE LA UNIÓN EUROPEA-NEXT GENERATION EU.***

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión. Considerando que las Entidades Locales pueden celebrar acuerdos, pactos, convenios o contratos con personas tanto de derecho público como privado, siempre que no sean contrarios al Ordenamiento Jurídico y considerándose de interés municipal la suscripción del presente convenio, el Pleno, por unanimidad de los presentes,* ***acuerda:***

*1.-* ***Aprobar*** *el convenio de colaboración por el que se regula la ejecución por el Ayuntamiento de Baztan de las actuaciones de "trabajos de homologación, adecuación y señalización del sendero SL-NA 12 Xorroxin" y "área de acogida de Erratzu", enmarcadas en la subvención concedida a la asociación Cederna Garalur para la ejecución del Plan de Sostenibilidad Turística en destino "Baztan Bidasoa", financiado por fondos de la Unión Europea-Next Generation EU. El texto del citado convenio se incorpora al expediente de la presente sesión.*

*2.- Facultar al alcalde para la firma de cuanta documentación fuera precisa suscribir en aplicación y desarrollo del presente acuerdo.*

*3.- Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.*

*4.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efecto.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/07/03
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/07/03

**9.- HITZARMENA, MEMORIA ETA BIZIKIDETZAKO, KANPO EKINTZAKO ETA EUSKARAKO DEPARTAMENTUAREKIN, MUGAZ GAINDIKO EKINTZA BATEN ESPARRUAN DIRU SOZIALA EZARTZEKO.**

Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman ondoren, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua eta honela laburbiltzen dena:

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Kontra bozkatuko dute. Euroa mugaz gaindiko moneta da eta 30.000 euro horiek bertze zerbaitean aprobetxatzen ahal dira, zonaldeko mediku zerbitzuan adibidez.

**Fernando Anbustegi, alkatea:** Nafarroako Gobernuarekin egindako hitzarmena da, dirulaguntza nominatiboa da eta udalak uko egiten badio galduko da. Doike medikuak kontratatu behar direla, baina ez da dena nekazaritza, ez da dena osasungintza, oreka bat behar da. Euroa existitzen da, baita bertze moneta lokalak ere, adibidez Euskoa Iparralden. Helburua da kilometro zeroko moneta izatea, bertako medikuak, nekazariak, dendariak… laguntzeko baliagarria.

Jakinda toki-entitateek akordioak, itunak, hitzarmenak eta kontratuak adosten ahal dituztela zuzenbide pribatu eta publikoko pertsonekin, beti ere ordenamendu juridikoaren kontra egiten ez badute, eta hitzarmen hau udal interesekoa dela ulertuta, Udalbatzak, aldeko 8 botorekin (EH-Bildu eta Zurekin-Contigo Baztan) eta kontrako 2kin (Baztango Independienteak-Independientes de Baztan eta UPN), honako hau **erabaki du**:

1.- Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskara Sailaren eta Baztango Udalaren arteko lankidetza-hitzarmena **onartzea,** mugaz gaindiko ekintza baten esparruan diru soziala ezartzeko. Hitzarmenaren testua bilkura honen espedienteari erantsi zaio.

2.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia izenpetzeko.

3.- Akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- Erabaki hau interesdunei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

***9.- CONVENIO CON EL DEPARTAMENTO DE MEMORIA Y CONVIVENCIA, ACCIÓN EXTERIOR Y EUSKERA, PARA LA IMPLANTACIÓN DE UNA MONEDA SOCIAL EN EL MARCO DE UNA ACCIÓN TRANSFRONTERIZA.***

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resume en:*

***Pello Sarratea, Baztango Independienteak:*** *Votarán en contra. El euro es una moneda transfronteriza y esos 30.000 euros se pueden aprovechar en otra cosa, por ejemplo, en el servicio médico de la zona.*

***Fernando Anbustegi, alcalde****: Es un convenio con el Gobierno de Navarra, la subvención es nominativa y se perderá si el ayuntamiento renuncia. Claro que hay que contratar médicos, pero no es todo agricultura, no es todo sanidad, hace falta un equilibrio. El euro existe, así como otras monedas locales, como Euskoa en Iparralde. El objetivo es que sea una moneda de kilómetro cero que sirva para ayudar al servicio sanitario, a la agricultura, a los comercios...de la zona.*

*Considerando que las Entidades Locales pueden celebrar acuerdos, pactos, convenios o contratos con personas tanto de derecho público como privado, siempre que no sean contrarios al Ordenamiento Jurídico y considerándose de interés municipal la suscripción del presente convenio, el Pleno, por 8 votos a favor (EH-Bildu y Zurekin-Contigo Baztan) y 2 en contra (Baztango Independienteak-Independientes de Baztan y UPN),* ***acuerda:***

*1.-* ***Aprobar*** *el convenio de colaboración entre el Departamento de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera y el Ayuntamiento de Baztan para la implantación de una moneda social en el marco de una acción transfronteriza. El texto del citado convenio se incorpora al expediente de la presente sesión.*

*2.- Facultar al alcalde para la firma de cuanta documentación fuera precisa suscribir en aplicación y desarrollo del presente acuerdo.*

*3.- Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.*

*4.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efecto.*

**10.- "ORONOZKO (BAZTAN) ZUNDA ETXEA DESGAITASUN INTELEKTUALA DUTEN PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTRO BIHURTZEKO BIRGAITZEA" PROIEKTUA ETA HORREN ERAGINPEKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA BEHIN BETIKO ONARTZEA. NAFARROAKO GOBERNUARI ESKATZEA UKITUTAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEAK LEHENBAILEHEN HARTU BEHARREKOAK DIRELA DEKLARATZEA**

2024ko otsailaren 22an, Baztango Udalak "**Oronozko (Baztan) Zunda etxea desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako eguneko zentrorako birgaitzea**" izeneko proiektua onartzea eta proiektu horrek ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda hasiera batean onestea erabaki zuen, hamabost eguneko epean jendaurrean jarriz.

Jendaurreko epean Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzak jakinarazi du 6. poligonoko 2. partzelan dagoen baratzea errentan hartzeko eskubidea dagoela Mª Teresa San Miguel Echeverriaren alde. Horrela, Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez honako **erabaki du:**

1.- Aipatutako proiektua **behin betiko onestea**, bai eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda ere, errentaria, Mª Teresa San Miguel Echeverria, bertan sartuz. Onespen horretan, onura publikokotzat eta okupatu beharrekotzat jotzea inplizituki jasotzen da, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 10. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 215.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2.- Nafarroako Gobernuari, horretarako organo eskuduna den aldetik, ukitutako ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu beharrekoak direla deklaratzeko eskatzea, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako ondorioetarako. Izan ere, Baztan-Bidasoa eskualdean adimen-desgaitasuna duten pertsonei arreta emateko gutieneko azpiegitura jarri behar da, eta, horretarako, premiaz ekin behar zaio Oronozko Zunda etxea birgaitzeari. Are gehiago, Oronozko Zunda etxea, gaur egun, narriadura-maila handian dagoela adierazten da, eta horrek eragozten du haren bizitza erabilgarria luzatzea.

3.- Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen balio justuaren ordainketari aurre egiteko beharrezko kreditu-atxikipena egitea.

***10.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PROYECTO "REHABILITACIÓN DE CASA ZUNDA DE ORONOZ (BAZTAN), PARA CENTRO DE DÍA PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL" Y LA RELACIÓN DE BIENES Y DERECHOS AFECTADOS POR EL MISMO. SOLICITAR AL GOBIERNO DE NAVARRA LA DECLARACIÓN DE URGENCIA EN LA OCUPACIÓN DE LOS BIENES Y DERECHOS AFECTADOS.***

*Con fecha 22 de febrero de 2024, el Ayuntamiento de Baztan aprobó el proyecto denominado* ***"Rehabilitación de casa Zunda de Oronoz (Baztan), para centro de día para personas con discapacidad intelectual"*** *y aprobó inicialmente la relación de bienes y derechos afectados por el mismo, sometiéndolo a información pública por plazo de quince días.*

*Durante el periodo de información pública, el Arzobispado de Pamplona y Tudela comunica la existencia de un derecho de arrendamiento de la huerta ubicada en la parcela 2 del polígono 6 a favor de Mª Teresa San Miguel Echeverria. Así, el Pleno, por unanimidad de los presentes,* ***acuerda:***

*1.-* ***Aprobar definitivamente*** *el proyecto de referencia, así como la relación de bienes y derechos afectados, incorporando en ella a la arrendataria, Mª Teresa San Miguel Echeverria, quedando implícita la declaración de utilidad pública y necesidad de ocupación en dicha aprobación, de conformidad con lo establecido en el artículo 10 de la Ley de Expropiación Forzosa y en el artículo 215.2 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio de la Administración Local de Navarra.*

*2.- Solicitar al Gobierno de Navarra, como órgano competente para ello, la declaración de urgencia en la ocupación de los bienes y derechos afectados, a los efectos previstos en el artículo 52 y siguientes de la Ley de Expropiación Forzosa, debido a la necesidad de dotar en la comarca de Baztan-Bidasoa, de infraestructura suficiente para la atención de personas con discapacidad intelectual, para lo que se precisa de manera urgente acometer la rehabilitación de casa Zunda de Oronoz. A mayor abundamiento, se señala que la casa Zunda de Oronoz se encuentra en la actualidad en un grado de deterioro importante, que impide la continuidad de su vida útil.*

*3.- Realizar la retención de crédito necesaria para hacer frente al pago del justiprecio de los bienes y derechos afectados por el proyecto.*

4.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, horren laburpena Foru Komunitateko egunkari batean, eta Baztango Udalaren iragarki-taulan jartzea.
5.- Erabaki hau eragindakoei jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

*4.- Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra, un resumen del mismo en un diario de la Comunidad Foral e insertarlo en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Baztan.*
*5.- Notificar el presente acuerdo a los afectados, a los efectos oportunos.*

**11.- TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK 2024KO APIRILAREN 25EAN HARTUTAKO ERABAKIA BERRESTEA. ERABAKI HORREN BIDEZ, “BAZTANGO UDALERRIKO KANPOKO ARGITERI PUBLIKOA BERRITZEKO” OBRAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTU ZEN.**
Alkateak Tokiko Gobernu Batzordeak 2024ko apirilaren 25ean hartutako erabakiaren edukiaren berri eman du. Erabaki horren bidez, prozedura irekia erabiliz, "Baztan udalerriko kanpoko argiteria publikoa berritzeko" kontratazio-espedientea eta kontratuaren balio zenbatetsia onartu ziren (424.951,38 €, BEZa kanpo).
Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez, Tokiko Gobernu Batzordeak 2024ko apirilaren 25ean hartutako erabakia **berrestea erabaki du**. Erabaki horren bidez, “Baztan udalerriko kanpoko argiteria publikoa berritzeko” obraren kontratazioa onartzen da, Next Generation EU Europar Batasuneko, funtsek PRTRren DUS5000 programaren bidez finantzatutakoa.

***11.- RATIFICACIÓN DEL ACUERDO DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DE 25 DE ABRIL DE 2024, POR EL QUE SE APRUEBA EL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS “RENOVACIÓN DEL ALUMBRADO PÚBLICO EXTERIOR EN EL MUNICIPIO DE BAZTAN”.***
*El alcalde da a conocer el contenido del acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local el día 25 de abril de 2024, por el que se aprueba el expediente de contratación mediante procedimiento abierto de la “renovación de alumbrado público exterior en el Valle de Baztan” y el valor estimado del contrato, que asciende a 424.951,38 € IVA excluido.*
*El Pleno, por unanimidad de los presentes, **acuerda ratificar** el acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local el día 25 de abril de 2024, por el que se aprueba la contratación de la obra de “renovación de alumbrado público exterior en el Valle de Baztan”, financiado por la Unión Europea Next Generation EU a través del Programa DUS5000 del PRTR.*

